

BULEGOKO PAPERA – Maila Aurreratua**Hornitzaileen checklista: Ingurumen irizpideak****1. ERANSKINA: PRODUKTUAREN BETEKIZUNAK**

Markatu BAI zutabeko laukitxoak, baldin eta derrigorrezko espezifikazio guztiak eta espezifikazio baloragarriak betetzen badituzu.

Derrigorrezko irizpideak betetzen ez badituzu, edota betetzen dituzula egiaztatzeko abalik aurkezten ez baduzu, zure eskaintza ez dugu esleipen prozedurako hurrengo faseetan kontuan hartuko.

Espezifikazio baloragarrien kasuan, espezifikazioak betetzen dituzula egiaztatzeko abalik aurkezten ez baduzu, ez dizugu horri dagokion punturik emango. Puntuazio horrek abantaila gehien dituen eskaintza identifikatzeko balio du.

Produktua:		
DERRIGORREZKO IRIZPIDEAK	BAI	ABAL MOTA/ MEMORIAKO ORRIALDEA
% 100 birziklatua (kontsumitu osteko zuntzen edukia ¹ % 65 edo handiagoa)	<input type="checkbox"/>	1,2
Klororik gabeko zuritzeko prozesua (TCF, PCF...)	<input type="checkbox"/>	1,2
Zuritasun maila \geq % 80, ISO 11475:2004 arauaren edo baliokidea den beste arau baten arabera	<input type="checkbox"/>	2,3
ISO 5630-1:1991 arauaren, Alemaniako DIN 6738:1999 [LDK 24-85] arauaren edota baliokidea den beste arau baten arabera, 100 urtetik gorako iraupena izatea.	<input type="checkbox"/>	1,2,3
Europako EN 12281:2003 arauaren edo baliokidea den beste arau baten arabera, inprimatzeko eta fotokopiatzeko baldintza teknikoak betetzea.	<input type="checkbox"/>	1,2,3

¹ Kontsumitu osteko paper zuntzak bereizita bildutako paperetik datozenak dira; horrelakoetan, alde batera uzten dira fabrikako errekorreak (aurrekontsumoa).

IRIZPIDE BALORAGARRIAK	PUNTUEN EHUNEOA ²	BAI	ABAL MOTA/ MEMORIAKO ORRIALDEA
Ekoizpen prozesuko ingurumen hobekuntzak			
Isurien eta konposatu kimikoen ingurumen irizpideak beteta, I. motako ekoetiketaren moduko batean definitua		<input type="checkbox"/>	1
Ontziak eta bilgarriak			
Paperezko/kartoizko bilgarriak		<input type="checkbox"/>	4
Bilgarriaren gutxienez % 80 birziklatua		<input type="checkbox"/>	2,4

ARGIBIDEAK

«**Abal mota/Memoriako or.**» zutabean, ingurumen ziurtagiriak eta ekoetiketak jaso behar dituzu, espezifikazio edo irizpide baloragarri bakoitza betetzen duzula abalatzeko. Dena dela, beste egiaztagiri baliokide batzuk ere onartuko dira, betiere ezarritako irizpideak bete direla argi eta garbi frogatzen bada.

Hona zenbaki bakoitzaren esanahia:

1. Aingeru Urdina Ekoetiketa		3. Laborategiko testa
2. Fitxa teknikoa		4. Adierazpena

Lizitatuzaileek datu konkretuak eman beharko dituzue, edota irizpide bakoitzerako zer abal aurkeztu duzuen zehaztu; bestela, berriz, eskatutako informazioa memoriaren zer orrialdetan jaso duzuen adierazi.

² Ingurumen alderdietan esleipen irizpideetarako zehaztu denaren arabera.